

La Benedictako parkea

Portugaleteko Udala



Proiektu honekin Portugaleteko hiri-lurzoruan gutxi gorabehera 43.000 m² lursail berreskuratzen da parke bezala. Lehen Triano mendietan burdin minerala atera ondoren, zamatzeko tokiak kokatzen ziren. Ekintza honekin astialdi- eta aisialdi-guneaz gozatzeko oso espazio degradatua herritarren esku jartzea lortu da. Bere egunean kontrolik gabeko isurketak, baratzeak, itxiturak eta estalpeak egon ziren, inolako antolaketarik gabe.

Parke hau Portugaleteko hiribilduari dagokion hirigune historikoarekiko mugakidea da eta beraren bitartez Azeta, Abacholo eta Repelegako auzoekin konektatzea lortu da, baita Sestaoko udalerrian La Iberiarekin ere.

Sotera de la Mier eta itsasadarraren ertzaren artean kokatzen den mendimazelaren lursailetan jardun dute, Bilbo-Santurtzi trenbidearekin konektatuz.

Una manera de hacer Europa
Fondo Europeo de Desarrollo Regional



Unión Europea

Iraganean Triano mendietako burdin meategien ustiaketarekin zerikusia zuten jarduerak garatu ziren. Erauzketa-jarduerak desagertu zirenean, zona erabat abandonatua gelditu zen, nahiz eta gaur egun kargatzeko tokien bideen eta instalazioen aztarnak mantendu. Horiek iragan industrialara argi eta garbi oroitzen dute. Gainera, erauzpen-erabilera haiei lotutako eraikuntza txikiak daude.

Eragiketa honek hasierako helburuak (paisaia berreskuratzea, ingurumena hobetzea, herritarrentzat aisialdirako gune zabala sortzea, itsasadarren ertzean bi udalerrri mugakideen artean oinezkoentzako pasabidea finkatzea eta Portugaleteko hirigune historikoari nahiz Bizkaiko zubiari balioa ematea) lortu ditu. Horrek guztiak berezko balioa izateaz gain, sendotu egin Bizkaiko Zubia gizadiaren ondare aitortu dutenean.

Una manera de hacer Europa
Fondo Europeo de Desarrollo Regional



Unión Europea